

2007. urtean biztanleko hezkuntzaren gastua 1.443 eurokoa izan zen, 2005ean baino % 14,4 handiagoa

Gastu osoa 3.087 milioikoa izan zen, BPGren % 4,6 eta aurreko 2 urteetako ehuneko bera

Eustaten datuen arabera, hezkuntzako gastu osoa 2.145 milioi eurokoa izan zen 2001. urtean eta 2007an 3.087 milioi eurokoa; beraz, aldi horretan gastuak % 6,3ko hazkunde metatua izan zuen. Biztanleka, 2001 eta 2007 urteen artean % 5,8ko urteko hazkundera izan zen, tasa metatuetan. Hezkuntzako gastua BPGren % 4,6 izan zen 2007. urtean, 2005eko ehuneko bera eta 2001. urtean izan zena baino 3 hamarren txikiagoa.

2007. urteko 3.087 milioiko gastu oso horrek 2.915 milioi euroko gastu arrunta izan zuen, baita 172 milioiko kapitalaren eraketa gordina ere. 2001. urtearen aldean, gastu arrunta % 45,6 gehitu zen eta urteko tasa metatua % 6,5 izan zen; bestalde, eraketa gordina % 20,7koa izan zen, urteko % 3,2ko tasarekin.

1. taula: Hezkuntzako gastu osoa. Euskal AE. 2001-2007 (mila eurotan eta %-tan)

	GUZTIRA				Aldakuntza- tasa (%) 2007/2005	Urteko batez bestekoa aldakuntza- tasa metatua (%) 2001-2007
	2001	2003	2005	2007		
IRAKASKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	2.145.456	2.386.655	2.660.981	3.087.414	16,0	6,3
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTU ARRUNTA	2.002.875	2.238.574	2.474.334	2.915.333	17,8	6,5
KEGI. Kapital Eraketa Gordina irakaskuntzako erakundeetan	142.581	148.081	186.647	172.081	-7,8	3,2
Hezkuntzako gastua biztanleko (eurotan)	1.030	1.141	1.261	1.443	14,4	5,8
Hezkuntzako gastua BPGaren % gisa	4,9	4,8	4,6	4,6	0,0	-0,3 (*)

(*) : puntu portzentualak

Iturria: Eustat,

2007. urteko datuak aintzat hartuta, funtzioen banaketak erakusten du gastu gehiena hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuetan egin zela: 2.593 milioi euro (% 84,0). Jarduera osagarrietarako (garraioa, jantokia, egoitza...) 178 milioiko gastua egin zen, gastu osoaren % 5,8. Gastu arrunta honakoek osatu zuten: liburuak eta eskolako materiala, hezkuntza sistemaren administrazio orokorra, eta hezkuntzako ikerketa eta berrikuntza. Hain zuzen, jarduera hauen gastua % 1,6, % 2,2 eta % 0,9 izan ziren, hurrenez hurren. Azkenik, gainerako % 5,6 kapitalaren eraketa gordinera bideratu zen.

2. taula: Hezkuntzako gastu osoa, funtzioka. Euskal AE. 2007
(mila eurotan eta %-tan)

	GASTUAK GUZTIRA	%
GASTU ARRUNTA	2.915.333	94,4
-Hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuak	2.592.776	84,0
-Jantokia	93.471	3,0
-Irakaskuntza Sistemaren Administrazio Orokorra	67.742	2,2
-Garraioak	41.090	1,3
-Liburuak eta eskolako materiala, etxeguneek erositakoak	49.643	1,6
-Irakaskuntzako ikerketa eta berrikuntza	26.940	0,9
-Beste gastu arrunt batzuk	43.671	1,4
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	172.081	5,6
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	3.087.414	100,0

Iturria: Eustat,

Finantzaketak aztertuz ikusten da finantzaketa publikoak egin zuela hezkuntza zerbitzuen gastuetako ekarpen handiena: % 85,2. Gainerako jardueretan (garraioa, jantokia, egoitza eta bestelakoak), aldiz, finantzaketa pribatua publikoa baino handiagoa izan zen: % 59. Kapitalaren gastuari dagokionez, finantzaketa nagusiena publikoa izan zen: % 79,9. Finantzaketa pribatua % 20,1 izan zen. Finantzaketaren eskema hori 2001 eta 2007 urteen arteko aldian mantendu zen.


3. taula: Zuzeneko finantzaketa-iturriak. 2007 (%)

	FINANTZAKETA PUBLIKOA	FINANTZAKETA PRIBATUA
GASTU ARRUNTA	80,3	19,7
-Irakaskuntza-zerbitzuak	85,2	14,8
-Beste jarduerak	40,9	59,1
KAPITAL-GASTUA	74,3	25,7
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	79,9	20,1

Iturria: Eustat,

Nazioartean, ELGEk lantzen duen hezkuntzari lotutako erakundearen zuzeneko gastu publiko eta pribatuaren adierazlea kalkulatu da arduraldi osoan matrikulatutako ikasle kopurua jakiteko. Bada, adierazle horren arabera, Euskal AEk erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) 7.319ko gastua izan zuen ikasle bakoitzeko lehen mailako, bigarren mailako eta bigarren maila osteko hezkuntzan; eta hirugarren hezkuntzan EAPn 11.306ko gastua izan zen ikasle bakoitzeko. Beheko grafikoan ikusten den bezala, Euskal AE Kanada baino beherago izan zen lehen eta bigarren mailako hezkuntzan, baina Espainiak eta Alemaniak baino gastu handiagoa izan zuen. Hirugarren hezkuntzan ere Espainiak, Frantziak eta Italiak baino gastu handiagoa izan zuen ikasle bakoitzeko, eta Alemania eta Kanadaren azpitik geratu zen.

1. grafikoa : B1 adierazlea. Oinarrizko zerbitzuetan, zerbitzu osagarrietan eta I+Gn urtean egindako gastua ikasle bakoitzeko (2005). EAP



Oharra: adierazle honetan ez dira jasotzen prestakuntzako barneko zentroetan egindako gastua eta liburuen salmentagatiko gastua, nahiz eta Hezkuntzaren Kontuan jaso behar diren. Bestalde, I+Gn egindako gastua jasotzen du, kategoria hori Hezkuntzaren Kontutik kanpo geratzen den arren.

Iturria: Eustat eta ELGE

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu Irizar

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es